



AGIRIA

Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Misionak eta Caritas erakundeok guztiz hunkituta gaude Ekuador gure herrialde adiskidea jasaten ari den zoritxarra dela-eta.

Une hauetan, egokia da munduko Elizbarrutietako lehen Misionak Euskal Herrikoak izan zirela eta duela 68 urte Ekuadorren zehaztu zirela gogoratzea. Euskal Elizbarrutietako 400 misiolari baino gehiago izan gara lurralde haietan esperientzia ahaztezinak bizi izan ditugunak: hurkotasuna, elkartasuna, zuzentasunaren aldeko borroka eta Biziaren Jainkoarenganako fedearen senide ospakizuna. Gure elizak urte luzez senidetu egin izan dira, lankidetzaz, presentzia, lekukotasuna eta gutxietsien aldeko aukera konpartituz. Horregatik, ekuadortar herriak jasaten diharduen egundoko zoritxar hau geurea balitz bezala sentitzen dugu. Berezi Manabiko Portoviejo Artxidiozesikoa, berrogei urtetik gora jardun izan dugu-eta bertan elkarlanean.

Errukiaren Urte honetan, gure ELKARTASUN osoa, hildakoen aldeko OTOITZ itzaropentsua eta lur bedeinkatu honentzat egun hobeak etorriko diren USTE SENDORIK sakonena adierazi nahi diogu herri maite honi, bere Elizari, eta ezagutzen dugun eta gure bihotzean daramagun hainbeste eta hainbeste gizon eta emakumeri.

Hau dela-eta, Euskal Herriko hiru elizbarrutiok koordinaturik ari gara, hondamendi honen aurrean gure elkartasuna aho batez adierazteko. Premiazko deia egiten diegu gure elkarte, erakunde eta boluntarioei, errukia garatzen dihardugun jardura eta estrategietan zehazteko, Ekuadorreko behartsu eta kaltetuenei bihotzez eta eraginkortasunez lagundu ahal izateko.

Zehazki, Caritas eta Misioetatik banku-kontuak ireki ditugu hiru elizbarrutietan, emergentziazko une honetan nahiz inguru kaltetuen geroko berreraikuntzan, elkartasuna bideratzeko. Ez dezagun ahaztu, lanik zailena emergentziaren ostean etorriko dela, berreraikuntzari ekiten zaionean eta lurrikarak albiste izateari uzten dionean.

Eukaristia-ospakizun bana egingo da euskal hiriburu bakoitzean, lurrikararen biktimen alde otoitz egiteko eta Euskal Herrian bizi den herri latinoamerikarrari gure elkartasuna adierazteko.

Konpromisoa dugu Ekuadorrekin. Ekuadortarren sufrimendua arintzeko betebeharrak morala dugu eta Euskal Herriko Elizatik ahalik eta baliabide eta bitarteko gehien antolatu eta bidali nahi dugu hori lortzeko. Bai premia larriko une honetan eta bai gero etorriko den berreraikuntzan ere. Laguntza eskatzen diegu kristau elkarte osoari eta Euskadiko herritar guztiei.

Eskerrik asko.